

## 74. FITXA BIZKAIA - Bizkaiko Lurralde Historikoan hondakinen kudeaketan zirkularitatea sustatzeko dirulaguntzak. 2025eko deialdia.

**Nori zuzendua:** Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrak eta mankomunitateak.

**Sarbide-esteka:** [Hasiara - Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa](#)

**Erreferentziazko araudia:** [Bizkaiko Foru Aldundiaren 143/2024 FORU DEKRETUA, abenduaren 19koa, zeinaren bidez oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzen baitira Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak dirulaguntzak eman ditzan Bizkaiko Lurralde Historikoan hondakinen kudeaketan zirkularitatea sustatzeko. 2025eko deialdia.](#)

**Eremuak:** Hondakinen kudeaketa.

**Zenbatekoa:** 1.000.000 €.

**Eskabideak aurkezteko epea:** 2025eko apirilaren 14ko 13:30ak arte.

### Laburpena

Deialdi honen helburua Bizkaiko Lurralde Historikoan hondakinen kudeaketan zirkularitatea sustatzeko lehia-konkurrentziaren araubidean dirulaguntzak ematea da.

### Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

a) **Inbertsioa kudeaketarako baliabideetan.**

Hondakinak biltzeko edukiontzia eta sistemak erostea, bai eta poltsa konpostagarriak eta merkataritzako eta ostalaritzako eta multzo organikoari atxikitako etxebizitzetakoak biltzeko ontziak ere. Sarrailak, giltzak, autokonpostagailuak, konpostagailu komunitarioak eta birringailuak.

b) **Hondakinak biltzeko ibilgailuak.**

Berotegi-efektuko gasen emisioak gutxitzen dituzten hobekuntza teknologikoak dituzten bilketa-ibilgailu berriak eskuratzea.

c) **Bilketa espezifikoak.**

Hondakinak modu pertsonalizatuan edo espezifikotan biltzeko eta kontrolik gabeko isurketak

desagerrarazteko sistemak ezartzea.

d) **Hondakinak biltzeko eta kontabilizatzeko prozesua digitalizatzea.**

Telekontrol- eta identifikazio-sistemak ezartzea. Konpostajea jatorrian kuantifikatzea.

e) **Aholkularitza teknikoa eta prestakuntza.**

Hondakinak sortzeagatiko ordainketara eta eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen kudeaketara bideratutako udal ordenantzak garatzea eta kontainerizazioa optimizatzea.

Hondakinak kudeatzeko eta/edo prebenitzeko tokiko planak idaztea. Konpostaje-prozesua jatorrian kontrolatzea eta ezaugarriak kontrolatzea.

f) **Hondakinen prebentzioa eta ingurumen-hezkuntza.**

Sentsibilizazio-kanpainak honako gai hauek lantzeko: elikagaien xahutzea, litteringa, plastikoen erabileraren murrizketa, konponketa, berrerabiltzea eta birziklatzea.

Ingurumen-hezkuntzako zerbitzuak.

## Gastuetarako aldi hautagarria

Erakundeek **2025ko urtarrilaren 1ean** hasi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean dirulaguntza emateko foru agindua argitaratu eta **hamar hilabetera** amaituko den epearen barruan gauzatu eta justifikatu beharko dituzte diruz lagundutako jarduerak. Epea bost hilabetez luzatuko da b) motako jarduketetan, hau da, emakidarako Foru Aginduan argitaratu eta 15 hilabete beranduago amaituko da.

## Intereseko beste alderdi batzuk

Udal edo mankomunitate bakoitzak proiektu edo ekintza bakar baterako dirulaguntza eskabidea izapidetu dezake. Diruz lagun daitezkeen ekintzen atalean zehaztutako atal guztietan eta ataletako bakoitzean jasotako inbertsio-gastuak adierazi ahal izango dira.

Bestalde, udalerrri batek ezin izango du eskatu ekintza bererako dirulaguntza baldin eta sartuta dagoen mankomunitateak ere dirulaguntza eskatu badu helburu bererako. Baina aukera izango du bestelako proiektuetarako eskabidea egiteko, bere eskabidean ez dauden beste kontzeptu batzuk direla-eta, mankomunitatea onuradun suertatu arren.